



Plan hidrológicoak: hainbat hausnarketa

Iñaki Antiguada*

Planak egitea zentzuzkoa da, batez ere zentzuz eginez gero. Baina planak egiteak, berez, ez du zertan ona izan behar. Are gehiago han-hemenka egiten direnean. Urarekin ere nabarmena da planen ugariak.

Planon gakoa esanetik eginera eman beharreko jauzian datza. Ura zentzuz erabiltzea? Bai, noski! Desorekak gaindituz eskualde guztien garapena lortu? Bai horixe! Kudeaketa hobetu? Ingurugiroarekiko harmonia? Noski! Baina zer dago errealitatean? Zelako zentzuzko erabilera, kudeatzaile batzuen helburua ura monopolizatzea izanik? Nolatan gainditu lurraldeko desorekak, urtegiak kokatzen dituzteneko eskualdeak hondamen sozio-ekonomikora bultzatzen direnean (Itoitz, kasuz)?

Plan Hidrológico serio batek, testuinguru sozioekonomiko-ekologiko zabalean, ur-eskariak (demandak) eta ur-eskaintzak (eskuratzeko moduan den ura) uztartu behar ditu, eta hori espazioan zein denboran. Eta hasieratik, oinarrian bertan, ageri dira desberdintasunak planen artean. Etorkizuneko ur-eskariak zehaztean, kasurako, zenbat biztanle izango dira, ustez, Euskal Herriko eskualde bakoitzean hamar urteren buruan? Hogei urteren buruan? Zein izango da orduan biztanleriaren ur-beharra etxean, industrian, nekazaritzan, ingurugiroan? Zein?

Aigues de Barcelona sozietateak arrazoizko horniziotzat 350 litro/bizilagun/egun (etorkizunerako ere) hartzen duen bitartean, Gipuzkoako PIAS planak 460ko hornizioa hartzen du, Eusko Jaurlaritzako DOTek 400ekoa, eta Plan Hidrológico Norte-III delakoak 205-405 bitartekoa, plan batzuk baino ez aipatzearren. Kontuan izan urtegi berri bat baino gehiago dagoela hor jokoan, zehaztu

gura den hornizioaren arabera. Bestetik, egunotan Bilboko Ur Partzuergoak zabalduko datuen arabera, Bilbo Handiko sareetatik pasatzen den uraren erdia edo "galdu" egiten da. Hala ere, urtegi berrien amets aseezina erakusten du erakunde horrek.

Uraren kontuan denon ahotan diren zenbait lelo badira, baina irakurketa desberdina dute ahotik ahora:

- *Ur barik ez dago bizitzarik.* Ura egonda ere bizitza ez da bermatzen. Urtegitarren inguruko herrien bizi-kalitatea ikustea baino ez dago. Hortaz, ura lurralde-desberdintasunak gainditzeko erabili beharrean, desberdintasunok areagotzeko erabili ohi da.
- *Ur barik ez dago iharduera ekonomikorik.* Bai. Hortaz, ura ugari den lekura bildu behar harko litzateke ura behar duen iharduera ekonomikoa, ehundaka kilometrotako zementuzko ubideak egin ordez. Eta ur-eskari handiena ureztaturiko nekazaritzak duela (Estatuan % 80) kontutan hartuta, non geratzen dira PAC eta GATT horien aginduak eskari horren etorkizuneko eboluzioa aurrikusita?
- *Ura baliabide urria da.* Hitzek denok onartu arren, bestelakoa da egitez; Prêt-a-jeter gizarte honen zutabeak jokoan baitira hor. Ekintzetan ura baliabide oparoa baillitza erabiltzen dute.

Ez diezagutela esan, berrikitan esan bezala, uraren arazoak (planak barne) tekniko hutsak direla; arazook testuinguru sozio-politikoan baino ezin baitira aztertu, teknikotasuna, oraingo, bigarren mailara pasatuz. Bada, honetan ere, zer hausnartu eta zer egin.



* Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.

